


Barnetegi Teknologikoa

"Ezagutu Teknologia Berrien balio estrategikoa"

Egitaraua



Egitaraua eta izen-ematea (gehienez 15 lagun)

Data: 2015eko abenduaren 18a

Ordutegia: 9:00etatik 19:00etara

Tokia: Jaizkibel Hotela, Baserritar Etorbidea, 1, 20280 Hondarribia, Gipuzkoa

<http://www.hoteljaizkibel.com/>

[Izen-ematea](#)

Udaletako kargu politikoentzat bakarrik

Antolatzailea:



1. Barnetegia filosofia didaktiko eta pedagogiko bezala



“Barnetegi” hitzaz izendatzen dira euskara ikasteko etxeak, non ikasleek hainbat egun ematen dituzten elkarrekin, euskaraz *bizitzeko* diseinatutako ingurune batean, beren hizkuntza-ezaguera ahalik eta azkarren hobetzeko.

Gure eguneroko bizitzan ordu asko ematen ditugu gauza berriak ikasten, baina gero eta denbora gutxiago daukagu horretarako, eta horregatik behar ditugu ikasbide azkarragoak.

Barnetegietan dena dago pentsatuta helburu hori lortzeko. Barnetegiak aukera ematen digu gure arreta eta denbora kontzentratu eta modu azkar, eraginkor eta atseginean ikasteko: gure eguneroko mundutik isolatzen gara helburu berdinak dituzten beste pertsona batzuekin, eta osoki murgiltzen gara helburu horiek lortzeko bereziki diseinatutako esperientzia batean.

“Barnetegia” **EZ** da teknologiarri buruzko prestakuntza-ikastaro bat.

2. Barnetegi Teknologikoa

Egunero sortzen dira teknologia berriei buruzko termino berriak gure elkarrizketetan, albisteetan, artikuluetan, iragarkietan (Internet, web 2.0, sms, mms, gigak, usb, wifi, bluetooth, 3G, blog, twitter, tdt...). Teknologien izaera dela medio, teknologia gaietan egunean egotea ez da erraza. Informazio eta komunikazio teknologia (IKT) guztien artean gutxiak daukate behar bezainbat heldutasun eta egonkortasun araututako hezkuntza sisteman ikasten ari den ikasle baten etorkizunean presente egongo den tresna gisa tratatu ahal izateko: dokumentuen oinarritzko ofimatikak (dokumentuak, kalkuluak, aurkezpenak), posta elektronikoak, Interneteko nabigazioak, eta beste ezer gutxi. IKT batzuek baliagarriak dirudite, baina ez dakigu zenbat denbora beharko dugun horiek erabiltzen ikasteko, eta ez dugu izaten aski denbora zalantza hori argitzeko edo teknologia horiek ikasteko.

IKT horietan gertatzen diren aldaketen izaera halakoa delako -azkarra, apurtzailea batzuetan, batera eta bestera, atzera eta aurrera saltoka dabilena-, normalean funtsezkoa dena baino ez dugu ikasten. Hurbilketa hori baliozkoa da ongi definitutako zeregin edo prozesu egonkorretan zentratutako lanpostuetarako, baina ez zuzendaritza-karguetarako, batzordeetako kideentzat, bitarteko agente karguetarako eta enpresa baten estrategian, berrikuntzan eta lehiakortasunean funtsezkoak diren beste eragile batzuentzat.



Esparru horietan aforismo hau aplikatu ohi da: **“Ez dakit zer ez dakidan!”**. Teknologia bat ezagutzen ez duenak ezin du erabili, baina ez daki, ezta ere, zertarako izan daitekeen erabilgarria, zer hobekuntza ekar ditzakeen, eta ez zaio bururatuko beste aplikaziorik, eta bere sormenak ezingo ditu alternatiba horiek aplikatu aukerak, sinergiak edo erabakiak ebaluatzen dituenen. Kontua ez da soilik teknologia asko **ezagutzea**; ia aldibereko ikuspegi baten bidez, osotasuna ikusi behar da, **ikusitako norantz garamatzaten** eta ulertu enpresa edo lan-talde batek nola erabili ditzakeen bere metodoak aldatzeko.

“Barnetegi Teknologikoaren” helburua da gaur egun gehien erabiltzen diren edo praktikoak diren IKTen artean batzuk aukeratu eta haiek behin eta berriz erabiltzea, haiei buruz gutxieneko ezagutza izatea, dela erosterako orduan irizpide argi bat izateko edo dela solas batean aipatzen direnerako. Baina, batez ere, enpresa edo antolakunde baten etorkizuna zehaztuko duten erabakiak hartzen dituzten pertsonentzat da “Barnetegi Teknologikoa”, ohar daitezten IKTak ez direla kanpoko tresna ilun eta konplexuak, baizik eta tresna erabilgarriak direla eguneroko lanean, eta lagundu egiten digutela produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzen.



“Barnetegi Teknologikoan” praktikaren bidez ikasten da hainbat **tresna** erabiltzen, ordenagailuan bertan, telefono mugikorrean, gailu teknologikoetan, eta abarretan. Beste tresna asko ere **ezagutaraziko dira**, batzuk lehendik ezagunak eta beste batzuk ez.

Hainbat irakasle egongo dira azalpenak osatzen eta ikasle bakoitzari bere bakarkako lanean laguntzen.

3. Barnetegi Teknologikoaren egitaraua

1. Informazio Gizartea.

Zer da Informazio Gizartea? Eta Web 2.0?

2. Erabilpen profesionalak - Produktibitatea

- Denboraren kudeaketa: agenda, egutegia.
- Informazioaren kudeaketa.
- Komunikazioak: mezularitza eta XXI. mendeko posta.
- Jakintzaren Kudeaketa: lan kolaboratiboa, edukiak eta ezagutza partekatzea 2.0 zerbitzuak erabiliz gure produktibitatea hobetzeko.
- Nortasuna sarean. Salerosketa seguruak eta ziurtagiri digitalak.
- Dispositibo mugikorrak.

3. Erabilpen pertsonalak: multimedia edukiak, aplikazioak eta informazioa. Segurtasuna. Jardunbide egokiak.

4. Sare sozialak: 2.0 marketina, erabilpen kasuak/jardunbide egokiak.

5. Beste erreferentzia batzuk.

Informazio gehiago hemen: Alex Crespo, acrespo@spri.es 94 403 70 39